

6. KANALAK

Kanalak hiru ataletan oinarritzen dira: bezeroarekiko komunikazioa, produktu-zerbitzuen banaketa eta salmenta.

Komunikazioa:

Gure enpresaren eta eroslearen arteko komunikazioa kanal propioan oinarrituta egongo da. Honekin batera produktua kanal zuzenen bidez salduko dugu. Gure ideia, Dysonekin lan egitea izango litzateke, non haien web orrialdean agertuko ginatekeen. Han, prezioak, zalantzak erantzun, feedback, etab. egingo genituzke haiekin batera. Honetaz gain, sare-sozialetan hartuko dugu parte garai honetan sare sozialek gizartean oso integratuta daudelako eta hauek lagundu ahal digutelako gure enpresari bezero berriak aurkitzen. Guretzako, bezeroarekin harreman ona izatea da helburu nagusia, horretarako, web orrian, gurekin komunikatzeko era guztietako informazioa jarriko dugu.

Banaketa:

Produktuaren banaketa, bidalketa internet bidez egingo dugu, edizio ezpeziala izanda, bezeroari zuzenean produktuak eramanez. Horretarako transporte enpresa bat kontratatu behar izango dugu.

Salmenta:

Ile- lehorgailuak pertsonalizatu ahal izango dira, horregatik prezioa ez da finkoa izango.

Gainera, ile apaindegietarako eta erabilera pertsonaletarako ez da produktu berdina izango.